



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko irailaren 26a

81. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, plastikozko poltsa ez-biodegradagarrien erabilera debekatzeko duena. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztua (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Oroimen Historikoaren Nafar Institutua sor dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Tuterako Erruki Etxearen zahar-etxea kudeatzen duen batzarrean dagozkion bi ordezkariak izenda ditzan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren izapideak has ditzan Nafarroako hezkuntza lege bat prestatzeko eta onesteko. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

—Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak denik eta irmotasunik handienaz gaitzesten eta arbuiatzen ditu ETaren azken atentatuak, zeinek pertsona baten heriotza ekarri baitute. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).

—Nafarroako ospitaleko eta ospitalez kanpoko larrialdi zerbitzuen egoera aztertzeko lan-talde bat sortzeko eskaera. Osasun Batzordeak bazter utzia (10. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak ba ote duen Nafarroa 2008-2012 plana aldatzeko asmorik, diru-bilketari buruzko azken datuen ondorioz, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (11. or.).

—Galdera, Nafarroako Ubidea eraikitzeko lanetan, Monte Planoko ubide-zatian egin den ingurumen-triskantza egin izanaren arrazoiei buruzkoa, Txentxo Jiménez Hervás jaunak egina (11. or.).

- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer iritzi duen Europar Batasuneko Auzitegiaren epaiari buruz, zeinak baitio Euskal Autonomia Erkidegoko Foru Aldundien eskumen fiskalak legezkoak direla, eta jakiteko zein diren Europako gaur egungo errealitatearen aurrean gure autonomia bermatzeko hartu beharreko neurriak. Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (12. or.).
- Galdera, Sarasako zahar-etxeari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (13. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik ez den Zaintzako atalbururik izendatu Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusian eta Nafarroako Gobernuak asmorik duen basozainen berariazko araubidea erregulatzen duen foru dekretua garatzeko, María Gracia Iribarren Ribas andreak egina (13. or.).
- Galdera, osasun plan estrategikoaren oinarri izanen den agiria prestatu duen enpresari eta horren kostuari buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (14. or.).
- Galdera, Irunberriko ur hornidurari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (15. or.).
- Galdera, Nafarroa 2008-2012 planean “Zehaztu gabeko beste inbertsio batzuk” izenarekin jasotako finantzaketa-formulari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (15. or.).
- Galdera, jakiteko Gobernuak zer asmo duen diru publikoen kutxan sartuko ez diren milioika euroak beste bideren batetik berreskuratzeko, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (16. or.).
- Galdera, Nafarroa 2008-2012 planean “Beste finantzaketa iturri batzuk” izenarekin jasotako finantzaketa-formulari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (16. or.).
- Galdera, aurrekontu orokorretan jasotako Nafarroa 2008-2012 planaren finantzaketari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (17. or.).
- Galdera, Nafarroa 2008-2012 planean “Autofinantzaketa eta hirugarrenei eginiko salmentak” izenarekin jasotako finantzaketa-formulari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (17. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko Foru Legean Nafarroa 2008-2012 planari lotuta agertzen diren kontusailetatik zeintzuek jasanen duten Gobernuak iragarritako gastuen mugatze edo murrizketa politika. Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (18. or.).
- Galdera, Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko Foru Legean Nafarroa 2008-2012 plana finantzatzeko aurreikusita dagoen zenbatekoari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (18. or.).
- Galdera, “Larraine-Villar de Arnedo” gasbidearen Irunberriko konpresio-estaziorako Enpresa zuzendari nagusiak emandako apirilaren 2ko 1173/2008 Ebazpenari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (19. or.).
- Galdera, Irunberriko udal plana aldatzeko espedienteari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (20. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik ez den bete “Toki ogasunen saneamendurako programa” izeneko kontusaila. Galdera erretiratzea (20. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Lege proposamena, plastikozko poltsa ez-biodegradagarrien erabilera debekatzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 22an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak plastikozko poltsa ez-biodegradagarrien erabilera debekatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

### **ERABAKIA:**

**1.** Plastikozko poltsa ez-biodegradagarrien erabilera debekatzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzea.

**2.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2008ko irailaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Foru Lege proposamena, plastikozko poltsa ez-biodegradagarrien erabilera debekatzen duena**

### **ZIOEN AZALPENA**

1. Nafarroan plastikozko milaka eta milaka poltsa erabiltzen dira urtero. Ingurumenak 2tik 4ra mende bitarte behar ditu poltsa horiek desegiteko eta degradatzeko. Hidrokarburoetatik heldu diren poltsa horien bidezko kutsadurak eragin handia du ingurumenean, eta fauna, lurreko nahiz ozeanoko flora eta paisaia kaltetzen ditu. Lurraren kutsadurako nahiz ikusizko kutsadurako elementu dira, eta milaka pertsonaren bizi kalitateari eragiten diote.

Hondakin plastikoen eta zuntz sintetikoen kutsadura hainbestearinokoa izatera ailegatu da, non gure planetako ozeano eta hondartza urrunak ere ez baitira hondamen horretatik libre. Hain zuzen ere, Plymouth-eko (AEB) Unibertsitateko ikertzaileen buru eta irakasle Richard Thompson-ek Science aldizkariari adierazi zionez, Erresuma Batuko hondartzetan eta estuarioetan eginiko ikerketa baten ondorioz ezarri ahal izan zen aztertutako lekurik gehienetan daudela petroliotik heldu diren partikulak, hala nola polimeroak, poliesterra eta akrilikoa.

Nazio Batuen ingurumenerako programaren bidez 2006ko ekainean eginiko kalkulu baten arabera, plastiko-hondakinen 46.000 zati daude ur gainean, batez beste, gertuko ozeanoetako milia koadro bakoitzeko. BBC-ren kalkuluen arabera, plastikoa da ozeanoetan igeri dagoen zaborraren ehuneko 90.

Greenpeace-ren estatistiken arabera, berriz, 6,4 milioi tona hondakin botatzen da urtero ozeanoetara. Hondakinen %90 plastikoa da. Horien artean nabarmen dira plastiko bigunak (plastikozko poltsak); horietako %70 itsas hondora doa, eta kalte larria egiten dio itsasoko ekosistemari.

Beste datu esanguratsu bat da pertsona bakoitzak gutxi gorabehera 1 kg. zabor sortzen duela egunean (365 kg. urtean). Hiri hondakin solidoak deritze teknikoki horiei, eta zabortegetietan bildu edo erregailuetan errausten dira. Erabilera bakarreko plastikozko poltsak dira hiri hondakin solido horien zati handi bat –%60 inguru–. Poltsa horiek fabrikatzeko, lehengai berriztaezinak erabili ohi dira, eta baita berriztagarriak ere, baina berriztatze behar duten denbora baino azkarrago ustiatzen dira, eta nekez birzikla daitezke behin erabiltuta.

Hondakinak deuseztatzeari dagokionez, zabortegetietan bilduta deusezta daitezke –horren desabantaila da denbora gehiegi behar dela hondakinak degradatzeko–, edo bestela, erraustuta, baina

horrek badu arrisku bat, toxiko kutsagarriak sor litezkeelako, esaterako dioxinak eta furanoak.

2. Biodegradazioa naturaren oinarrizko prozesu bat da. Funtsean, ondokoan datza: organismo baten deskonposizioa, onddoen eta bakterioen eraginez. Ekintza horrek beste izaki bizidun batzuk sortzeko oinarrizko substantziak sortzen ditu.

Aldiz, substantzia bat ez da biodegradagarria, baldin eta degradatzeko behar duen denbora luze-egia bada edo gaintzen badu organismo deskonposatzaileek haiek prozesatzeko duten ahalmena. Plastikozko poltsak, duten konposizio kimikoa dela eta, elementu ez-biodegradagarri horien artean daude. Izan ere, plastikozko poltsak petrolioarekin fabrikatzen dira; hau da, ingurumenaren etsai handia den iturri berriztaezin batekin. EP A 4-ren arabera, berriz, poltsa tona bat birziklatzen denean 11 petrolio-upelen pareko energia aurrezten da; alegia, 1.200 dolar inguru aurrezten dira.

3. Gaur egun munduan joera dago plastikozko poltsak gutxitzeko eta, ondoren, desagerrarazteko. Atzerriko esperientziak erakusten digu lau paradigma daudela plastikozko poltsak kontrolatzeko eta tratatzeko: a) herritarra, baldin eta erkidegoak hartzen baditu debeku-neurriak (Modbury, Inglaterra); b) tributuak, baldin eta plastikozko poltsen erabilerari zerga bat ezartzen bazaio (Irlanda, Danimarka); c) udal ordenantzak (Kanada, eta d) debeku nazionalak (Frantzia).

Hona adibide batzuk:

– Munduan neurri aitzindaria zena hartu zen Modburyn: plastikozko poltsen erabilera debekatu zuten, poltsek fauna itsastarrean duten eragin suntsitzaileaz jabetu ondoren. Neurri hori 2007ko maiatzean hasi ziren aplikatzen.

– Irlandako eredia ez doa debekuaren ildotik, baizik eta zama bat ezartzea proposatzen du. Halatan, 2002ko martxoaren 4tik aitzina, 15 euro zentimoko zerga ezarri zen plastikozko poltsa bakoitzeko. 2007ko uztailan, agintariek 22 euro zentimora igo zuten zerga hori.

Kaliforniako estatuan “plastic bag reduction ordinance” ordenantza onetsi zen 2007ko apirilaren 6an, zeinaren bidez debekatu baitzen plastikozko poltsak erabiltzea San Frantziskoko supermerkatu nagusietan eta farmazietan, eta poltsa birziklagarriak sustatu ziren. Araua urratzeak zeha-pen penala aplikatzea dakar.

– Frantzian, 2006ko urtarrilaren 5eko 2006-11 legeak debekatzen du 2010etik aitzina plastikozko poltsak merkaturatzea. Arau horrek helburu du plastikozko produktu biodegradagarrien garapena sustatzea.

– Australiako Victoria hirian 10 euro zentimoko zerga ezarri zen supermerkatuetan emandako poltsa bakoitzeko.

– Kanadan, Leaf Rapids-eko (Manitoba) herrixkan debekatu egin zen dendetan plastikozko poltsak erabiltzea, saltzea eta banatzea. Arau hori urratzeak isuna dakar.

– Azkenik, Txinako gobernuak plastikozko poltsen erabilera murriztea erabaki zuen. Horretarako, plan bat ezarri zuen, zenbait fase zituen. Hartara, supermerkatu handiak izanen dira Hong Kong-eko 50 dolar zentimo –alegia, dolar amerikarreko 6 zentimo– ordaindu beharko duten lehen enpresetako batzuk. Zerga horren bidez lortutako dirua azpiegituretarako, hezkuntzarako eta ingurumenarekin lotutako beste jarduera batzuetarako erabil daiteke.

4. Nafarroan, ingurumenari buruzko legediak ez du arautzen plastikozko poltsen birziklatzea, banaketa eta murrizketa. Horrenbestez, ez dago gai horri buruzko ez lege ez erregelamendurik. Gauzak horrela, plastikozko poltsen erabilera murrizten duen araudi eraginkor bat jaso beharra dago ingurumenari buruzko gure legedian, betiere kontuan hartuta ezinezkoa dela plastikozko poltsak supituki debekatzea, horrek paketatze-gastuen igoera ekarriko lukeelako. Hori dela eta, beharrezkoa da gutxiakoa araudia ezartzea.

5. Hortaz, ondoko lege proposamena aurkezten diogu Parlamentu honi:

**1. artikulua.** Supermerkatuek, multidendek, farmaziek eta gisako saltokiek debekaturik dute azken kontsumitzaileei doan nahiz kostu bidez banatzea plastikozko poltsa ez-biodegradagarriak, ingurumenari kalte egiten diotenak.

**2. artikulua.** Paketatze degradagarrietarako gailuak ezartzeko kostuak, multidendek, farmaziek eta gisako saltokiek ordaindu beharrekoak, ezin izanen zaizkio ordainarazi azken kontsumitzaileari.

**3. artikulua.** Nafarroako Gobernuak taxuturiko erregelamendu batek ezarriko ditu debekuaren baldintzak, zeinak 2010eko urtarrilaren 1ean hartuko baitu indarra. Orobat adieraziko ditu paketatze-poltsa ez-degradagarrien eta degradagarrien konposizio-osagaiak.

Erregelamendu horrek poltsa degradagarriak eta ez-degradagarriak zalantzarik gabe identifikatzeko seinaleak ere finkatuko ditu, kolore, zeinu, testura nahiz bestelako ezaugarrien bidezkoak, eta lege hau urratuz gero aplikatu beharreko zeha-penak ezarriko ditu.



---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Oroimen Historikoaren Nafar Institutua sor dezan.**

### *NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Oroimen Historikoaren Nafar Institutua sor dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko irailaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Patxi Zabaletak eta Maiorga Ramírezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

#### Zioen azalpena

Nafarroan, gerra zibilak eta ondorengo garai frankistak iraun zuten bitartean, printzipio demokratikoak eta giza eskubideak urratu zituzten gertakari larriak bizi izan ziren. Milaka pertsona fusilatuta eta errepresaliatu zituzten, eta, orain arte, herri ekimena baizik ez da arduratu garai hartan gertatutakoa argitzeaz, "1936an fusilatutakoen senideen elkarte" kasu.

Ankerkeria izugarriko gertakari bidegabeak gertatu diren herrialde asko eta askotako erakunde publikoek hartu dituzte adiskidetzera eta oroi-

men historikoaren berreskuratzera bideratutako neurriak, ondokoak helburua: gertakari haiek ez ahaztea, biktimei justizia egitea eta gertakari haien ezagutzak balio izatea berriro errepika ez daitezen.

Halatan, badira adibideak arestian aipatutako helburuak erdieste aldera Europan erakundeek hartu dituzten neurriei dagokienez. Parlamentutalde honen iritziz, Europan ezarri diren Oroimen Historikoa Berreskuratzeko Institutuak dira, neurri horien artean, Nafarroako egoerari hobekien egokitzen zaizkionak.

Belgikan, esate baterako, urteak daramatza lanean gisa horretako zentro batek, eta hura arduratzen da dokumentu-funtsa osatu, artxibatu eta erakustez eta ikasleentzat nahiz oro har publikoari zuzendutako jarduerak antolatzeaz. Ezarpen eta onarpen handia du, eta aurrez finkaturiko helburuen lorpen-maila ere handia da.

Horregatik guztiagatik, eta gure erakundeek auzi horiek jorrazteko prozedura publiko bat aztertze aukera eta beharra dutelako, parlamentutalde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

**1.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Oroimen Historikoaren Nafar Institutua sor dezan. Institutuak xede izanen du dokumentu-funtsa sortzea eta herritarren sentsibilizazioa sustatzea, erabateko adiskidetzera lor dadin eta gerra zibil eta frankismo garaian Nafarroan bizitako gertakariak berriz gerta ez daitezen.

**2.** Institutua sortu aitzin, Nafarroako Gobernuak hura ezartzeko eta definitzeko plan bat ekarriko du Legebiltzarrera, eta Legebiltzarrak onetsi beharko du plana.

Iruñean, 2008ko irailaren 18an

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro eta Patxi Zabaleta Zabaleta

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Tuterako Erruki Etxearen zahar-etxea kudeatzen duen batzarrean dagozkion bi ordezkariak izenda ditzan.**

### **NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Tuterako Erruki Etxearen zahar-etxea kudeatzen duen batzarrean dagozkion bi ordezkariak izenda ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko irailaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 195. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Tuterako Erruki Etxea Fundazioak egoiliarrek zuzenean artatzeko zerbitzuetako zati handi baten kudeaketa kanpora atera zuenetik, zerbitzu horien enpresa esleipen-hartzaileetako langileek behin baino gehiagotan egin behar izan dituzte manifestazioak eta grebak, haien lan-baldintza prekarioak hobetzen saiatzeko. Lan-baldintza horiek, logikoa

denez, eragin zuzena dute egoiliarrei emandako zerbitzuaren kalitatean.

Beharrezkoa da foru administrazioak enpleguaren kalitatearen aldeko apustu sendo eta sinesgarria egin dezan, bereziki hirugarren adinaren sektorean, herritarrentzako oso sentibera baita sektore hori.

1987ko estatutuek –horiek dira erruki etxean egun indarrean direnak– jasotzen dute Nafarroako Gobernuak erruki etxeko Gobernuko Batzordeko bi ordezkari izendatuko dituela, baina, erabaki hori ez da oraindik hartu, sinestezina bada ere.

Argi dago Gizarte Gaietako Departamentuak duela, erakunde gisa, hirugarren adinaren artatzearen ardurarik handiena, eta, hortaz, beharrezkoa dela departamentuak erruki etxeko organo exekutiboetan zuzenean esku hartzea, edo, zuzenean esku hartu ezean, Tuterako Udalak berak izendatzea bi ordezkari horiek.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hilabeteko epean izenda ditzan Tuterako Erruki Etxeko Batzordean dagozkion bi ordezkariak, edo, bestela, ordezkari hori Tuterako Udaleko bi zinegotziren esku utz dezan.

2. Legebiltzar honek uste du beharrezkoa eta posiblea dela Erruki Etxean lan bera egin eta maila bera duten pertsona guztien lan baldintzak homologatzea.

Iruñean, 2008ko irailaren 18an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren izapideak has ditzan Nafarroako hezkuntza lege bat prestatzeko eta onesteko.**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita beharrezkoak diren izapideak has ditzan Nafarroako hezkuntza lege bat prestatzeko eta onesteko.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko irailaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, mozio bat aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak eztabaidatu eta onetsi dezan. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren izapideak has ditzan Nafarroako hezkuntza lege bat prestatzeko eta onesteko.

#### Zioen azalpena

Urte hauetan zehar, hezkuntza arloko legeen garapenaren ondorioz, Nafarroako hezkuntza sistemak behar adinako heldutasuna lortu du Nafarroako hezkuntza lege bat taxutzen hasi ahal izateko, zeinak erreferentziatzeko esparru bat eratuko baitu Nafarroan hezkuntzari eta prestakuntzari dagokienez.

Espainiako zenbait autonomia erkidegok eraman dute azken bururaino legegintza-eginkizun hori, eta beste batzuk aurreproiektuak eztabaidatzen ari dira. Foru Komunitateak hezkuntza-sare ona du, lan handia egin du berrikuntzari eta hobekuntzari dagokienez –lan hori indartu egin da hezkuntza arloko eskumenak eskuratu zirenez geroztik– eta profesionalen talde sendoa du hezkuntzako etapa eta sektoreetan. Urteetako

esperientzia hori abiapuntu sendoa da lege bat egitean egin beharreko hausnarketari eta eztabaidari ekiteko.

Nafarroako hezkuntza legeak gure hezkuntza sistemaren plangintzarako oinarria izan behar du, gero eta konplexuagoak diren gizartearen eta herritarren beharrezkoak erantzuteko. Izan ere, denek izan behar dute prestakuntza izateko aukera, irizpide eta espiritu kritikoarekin aurre egin diezaieten mende honek, mundu globalizatu eta teknologiaren aldetik aurreratuan, jartzen dituen erronkei.

Hezkuntzari buruzko txosten guztiek, bai nazionalak bai nazioartekoek, behin eta berriro adierazten dute harreman estua dagoela kalitatezko enpleguaren eta kualifikazio profesional onaren artean. Nafarroak hezkuntza eta prestakuntza arloetan dituen baliabide guztiak erabili behar ditu, ondokoak helburu: herritarrek garapen pertsonal eta profesional handiena erdiestea eta jakintza, produktu berrien garapena, berrikuntza, bizi kalitatea eta herritarren jardute aktibo eta kritikoa bul-tzatzen dituen eredu baterantz joan ahal izatea.

Nafarroako hezkuntza legeak, oinarritzko legedia errespetatuta, badu esparru zabala zenbait auzi, gure hezkuntza sistemaren kalitatea areagotuko dutenak, arautzeko: ekitatea eta erantzunkidetasuna ikasleen eskolatzean, administrazioen parte hartzea, landa-eskola, berdintasuna, hezkuntzaren taxuera bizitza osoan zehar, atzerriko hizkuntzak ikastea, euskara ikastea, ikastetxeen antolakuntza, informazioaren teknologiak eta horiek behin betikoz ezartzea eskoletan eta institutuetan, familien eta gizarte-eragileen parte hartzea, lanbide heziketako sistema berritzailea, hezkuntzaren gizarte-konpromisoa, eskola-orientazioa, familien lankidetzak, eskola-ordutegia, irakasleen sustapena.

Oraingoa une egokia da hezkuntza-legedia taxutzeko Nafarroan, hezkuntzaren eta prestakuntzaren oinarriak hurrengo urteetarako, garapenerako ezartzeko, hazkunderako, berrikuntzarako eta gizarte justuagoa eta solidarioagoa eraikitzeko.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa



aurkeztu du, Parlamentuaren Osoko Bilkuran ezta baidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiazkoak diren izapideak has ditzan Nafarroako hezkuntza lege bat prestatzeko, zeina onetsi beharko baita 2009 amaitu baino lehen.

Iruñean, 2008ko irailaren 18an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

---

**Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak denik eta irmotasunik handienaz gaitzesten eta arbuiatzen ditu ETaren azken atentatuak, zeinek pertsona baten heriotza ekarri baitute.**

**ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA**

2008ko irailaren 22an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“ETA talde terroristak Armadako brigada Luis Conde de la Cruz jauna hil du gaur gauean, Santoñako Militarren Patronatuaren aurka bonba-auto bidez eginiko atentatuan. Talde terroristaren ekintza kriminal honen aurrean, Nafarroako Parlamentuak erabaki du:

Lehena. Nafarroako Parlamentua erabat gaitzesten du Armadako brigada Luis Conde de la Cruz jaunaren erailketa, Santoñako Militarren Patronatuaren aurka bonba-auto bidez eginiko atentatuan gertatua, beste militar bat eta Kantabriako herri horretako zenbait herritar ere zauritu direnekoa.

Bigarrena. Nafarroako Parlamentuak orobat gaitzesten ditu ETA talde terroristak eginiko azken ekintzak –polizia nazional baten aurkako bonba itsatsia eta Gasteizen eta Ondarroan jarritako bonba-autoak–, zeinen bidez biktima ugari eragin nahi izan baititu, atentatuetan erabilitako lehergai ugariei erreparatuta.

Hirugarrena. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten die ETako hiltzaileen buru-

gabekeriaren eta eromenaren biktima izandako Luis Conde de la Cruz jaunaren senideei nahiz azken atentatuak biktimen senideei eta lankideei –Polizia Nazionaleko, Armadako, Vital Kutxako eta Ertzaintzako biktimenei–, eta babes ematen dio indarkeria terroristaren kontra eta herritarren eskubideen eta askatasunen alde darmaten borrokari. ETAK, azken ekintzen bidez, bere biktima gisa seinalatzen ditu Zuzenbide Estatuak ordezkatzen duten estamentu guztiak eta herritarrok oro har, horien kontra zuzentzen baititu bere atentatu bereizmen-gabeak, gizarteari nahigaberik handiena eragin nahian.

Laugarrena. Nafarroako Parlamentuak apustu egiten du irmo eustearren ondokoei buruzko uste osoari: indar politiko demokratikoen batasunak, erakundeen babesak eta herritarren ekarpenak lortuko dutela ETaren porrota. Printzipio demokratikoen sendotasunak –printzipio horietan oinarritzen dira gure Zuzenbide Estatuak nahiz Auzitegien eta Segurtasun Indar eta Kidegoen ekintzak– eta herri honetako herritarrak ordezkatzen dituzten erakundeen sendotasunak garaituko dute, azkenean, ETako hiltzaileen eromena.”

Iruñean, 2008ko irailaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Nafarroako ospitaleko eta ospitalez kanpoko larrialdi zerbitzuen egoera aztertzeko lan-talde bat sortzeko eskaera.**

### *OSASUN BATZORDEAK BAZTER UTZIA*

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak Nafarroako ospitaleko eta ospitalez kanpoko larrialdi zerbitzuen egoera aztertzeko lan-talde bat sortzeko eskaera aurkeztu zuen.

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2008ko irailaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako eskaera baztertea.

Iruñean, 2008ko irailaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak ba ote duen Nafarroa 2008-2012 plana aldatzeko asmorik, diru-bilketari buruzko azken datuen ondorioz.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak ba ote duen Nafarroa 2008-2012 plana aldatzeko asmorik, diru-bilketari buruzko azken datuen ondorioz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko irailaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak ba al du, diru-bilketari buruzko azken datuak ikusita, Nafarroa 2008-2012 plana aldatzeko asmorik?

Iruñean, 2008ko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

**Galdera, Nafarroako Ubidea eraikitzeke lanetan, Monte Planoko ubidezatien egin den ingurumen-triskantza egin izanaren arrazoiei buruzkoa.**

*TXENTXO JIMÉNEZ HERVAS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervas jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Ubidea eraikitzeke lanetan, Monte Planoko ubide-

zatien egin den ingurumen-triskantza egin izanaren arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko irailaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Txentxo Jiménez Hervas jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer arrazoik justifikatzen du Nafarroako Ubidea eraikitzeko lanetan, Monte Planoko ubide-zatian

(Erriberri eta Tafalla artean) egin den ingurumen-triskantza egin izana? Nafarroako Gobernuak ba al zuen, departamenturen baten bidez, egitekoa zen obra motari buruzko berririk? Horrenbestez, zer neurri exijituko ditu egindako ingurumen-triskantza zuzentzeko?

Iruñean, 2008ko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervas

---

**Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer iritzi duen Europar Batasuneko Auzitegiaren epaiari buruz, zeinak baitio Euskal Autonomia Erkidegoko Foru Aldundien eskumen fiskalak legezkoak direla, eta jakiteko zein diren Europako gaur egungo errealitatearen aurrean gure autonomia bermatzeko hartu beharreko neurriak.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer iritzi duen Europar Batasuneko Auzitegiaren epaiari buruz, zeinak baitio Euskal Autonomia Erkidegoko Foru Aldundien eskumen fiskalak legezkoak direla, eta jakiteko zein diren Europako gaur egungo errealitatearen aurrean gure autonomia bermatzeko hartu beharreko neurriak.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko irailaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Maiorga Ramírezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunetako batek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran erantzun dadin:

Foru lurraldeen autonomia fiskala ez dago espresuki aitorturik Europar Batasuneko itunen testuan; horrek, azken bi hamarkadetan, segurtasun juridikorik eza sortu du.

Iragan den legegintzaldian, Nafarroako Parlamentuak mozio bat onetsi zuen aho batez, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak premiatu baitzuen egoera honen aurrean beste estatu batzuetako gobernuek egin dutena egin zezan, beren araubide juridikoetako berezitasun batzuk tratatuetan sartu baitituzte.

Berriki, Europar Batasuneko Auzitegiak, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiak hala eskaturik, Gaztela eta Leongo eta Errioxako gobernuek Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen fiskalei auzitegietan eginiko erasoaren karietara, eskumen horien legezkoatasuna ebatzi du 2008ko irailaren 11ko epaiaren bidez.

Epai horren aurrean, parlamentari honek Nafarroako Gobernuari galdera egin dio, jakiteko zer iritzi duen horri buruz eta zein diren, haren iritziak, Europako egungo errealitatean gure autonomia bermatzeko hartu behar diren neurriak.

Iruñean, 2008ko irailaren 17an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Sarasako zahar-etxeari buruzkoa.**

*IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Sarasako zahar-etxeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Galdera, Sarasako zahar-etxeari buruzkoa

• Zer ratio ditu Sarasako zahar-etxeak? Ba al dago bertan etengabe erizaintzako diplomadunik, maiatzaren 23ko 209/1991 Foru Dekretuak agintzen duen legez?

• Aipatu zahar-etxean zenbat toki itundu dago?

• Zenbat igo dira tarifak, ehunekoetan eta zenbaki absolutuetan, azken bi urteotan?

• Zenbat ikuskapen egin da zahar-etxe horretan? Zer huts hauteman dira?

Iruñean, 2008ko irailaren 15ean

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

## **Galdera, jakiteko zergatik ez den Zaintzako atalbururik izendatu Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusian eta Nafarroako Gobernuak asmorik duen basozainen berariazko araubidea erregulatzen duen foru dekretua garatzeko.**

*MARÍA GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Gracia Iribarren Ribas andreak aurkeztutako galdera, jakiteko zergatik ez den Zaintzako atalbururik izendatu Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusian eta Nafarroako Gobernuak asmorik duen basozainen berariazko

araubidea erregulatzen duen foru dekretua garatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari M.<sup>a</sup> Gracia Iribarren Ribas andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak idatziz erantzun dezan:

- Zergatik ez da izendatu oraindik Zaintzako atalbururik Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusi-an?

- Departamentuak ba al du asmorik Basozainen berariazko araubidea ezartzen duen azaroaren 3ko 132/2005 Foru Dekretua garatzeko?

Iruñean, 2008ko irailaren 16an

Foru parlamentaria: M.<sup>a</sup> Gracia Iribarren Ribas

---

**Galdera, osasun plan estrategikoaren oinarri izanen den agiria prestatu duen enpresari eta horren kostuari buruzkoa.**

*ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, osasun plan estrategikoaren oinarri izanen den agiria prestatu duen enpresari eta horren kostuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzuteko:

Zioen azalpena

Osasun Departamentuak enpresa baten zerbitzuak kontratatu ditu, Osasun plan estrategikoaren oinarri izanen den agiria prestatu dezan.

Galderak:

- Zer enpresari agindu zaio agiri hori prestatu dezan?

- Zenbateko kostua izan du agiri hori prestatzeko?

Iruñean, 2008ko irailaren 16an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

## **Galdera, Irunberriko ur hornidurari buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Irunberriko ur hornidurari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera

hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak presio handiko ur horniduraren plan zuzendaria onetsi zuen 10. eremua deituriko horretarako, non ezartzen den Irunberri hornituko dela Nafarroako Gobernuak Itoizko urtegian duen ur-emakidaren presio handiko uren obretatik.

Hori dela-eta, foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Gaur egun, Itoizko urtegitik hornitzen al da Irunberri?

Kasua bada, nondik hornitzen da Irunberri gaur egun?

Kasua bada, zergatik ez da betetzen ari plan zuzendaria?

Iruñean, 2008ko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Nafarroa 2008-2012 planean “Zehaztu gabeko beste inbertsio batzuk” izenarekin jasotako finantzaketa-formulari buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroa 2008-2012 planean “Zehaztu gabeko beste inbertsio batzuk” izenarekin jasotako finantzaketa-formulari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroa 2008-2012 planean finantzaketa-formula bat jasotzen da “Zehaztu gabeko beste inbertsio batzuk” izenarekin, eta zehazteke dauden 93 milioi euroko esleipena dauka.

Hori dela-eta, foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Aurrerapausorik eman al da inbertsio-zehaztapenean? Ba al dago hitz emandako proiekturik?

Iruñean, 2008ko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, jakiteko Gobernuak zer asmo duen diru publikoen kutxan sartuko ez diren milioika euroak beste bideren batetik berreskuratzeko.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Gobernuak zer asmo duen diru publikoen kutxan sartuko ez diren milioika euroak beste bideren batetik berreskuratzeko.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

“400 euroak” deituriko neurria dela-eta Nafarroako Gobernuak diru publikoen kutxan sartuko ez dituen 63 milioi euroetatik, zein da Nafarroako Gobernuaren ustez beste bide batzuetatik berreskuratu ahal izanen den zenbatekoa, errenta erabilgarri handiago horrek eraginen duen ustezko kontsumo-hazkundearekin? Eskuragarri dauden txostenak eta azterlanak bidaltzea nahi dut.

Iruñean, 2008ko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Nafarroa 2008-2012 planean “Beste finantzaketa iturri batzuk” izenarekin jasotako finantzaketa-formulari buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroa 2008-2012 planean “Beste finantzaketa iturri batzuk” izenarekin jasotako finantzaketa-formulari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroa 2008-2012 planean finantzaketa-formula bat jasotzen da “Beste finantzaketa-iturri batzuk” izenarekin, eta 262 milioi euroko esleipena dauka.

Hori dela-eta, foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

“Beste finantzaketa-iturri” horiek eta gaur egun duten egoera zehaztea nahi dut.

Iruñean, 2008ko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro



## **Galdera, aurrekontu orokorretan jasotako Nafarroa 2008-2012 planaren finantzaketari buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, aurrekontu orokorretan jasotako Nafarroa 2008-2012 planaren finantzaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Aurrekontu Orokorren bidez finantzatuko den Nafarroa 2008-2012 planari dagokionez, zein da urtero esleituko den zenbatekoa?

Iruñean, 2008ko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Nafarroa 2008-2012 planean “Autofinantzaketa eta hirugarrenei eginiko salmentak” izenarekin jasotako finantzaketa-formulari buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroa 2008-2012 planean “Autofinantzaketa eta hirugarrenei eginiko salmentak” izenarekin jasotako finantzaketa-formulari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroa 2008-2012 planean finantzaketa-formula bat jasotzen da “Autofinantzaketa eta hirugarrenei eginiko salmentak” izenarekin, eta 627 milioi euroko esleipena dauka.

Hori dela-eta, foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Proiektu bakoitzeko zein zenbateko finantzatu da formula horrekin? Zehaztu proiektuz proiektu eta jarduketa bakoitza.

Iruñean, 2008ko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, jakiteko Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko Foru Legean Nafarroa 2008-2012 planari lotuta agertzen diren kontusailetatik zeintzuek jasanen duten Gobernuak iragarritako gastuen mugatze edo murrizketa politika.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko Foru Legean Nafarroa 2008-2012 planari lotuta agertzen diren kontusailetatik zeintzuek jasanen duten Gobernuak iragarritako gastuen mugatze edo murrizketa politika.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Aurrekontu Orokorreari buruzko Foru Legean Nafarroa 2008-2012 planari lotuta agertzen diren kontusailetatik zeintzuek jasanen dute Gobernuak iragarritako "gastuen mugatze" edo murrizketa politika?

Iruñean, 2008ko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko Foru Legean Nafarroa 2008-2012 plana finantzatzeko aurreikusita dagoen zenbatekoari buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko Foru Legean Nafarroa 2008-2012 plana finantzatzeko aurreikusita dagoen zenbatekoari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zein da Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean Nafarroa 2008-2012 plana finantzatzeko aurreikusia dagoen zenbatekoa? Zehaztu kontusailak.

Iruñean, 2008ko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

---

**Galdera, “Larraine-Villar de Arnedo” gasbidearen Irunberriko konpresio-estaziorako Enpresa zuzendari nagusiak emandako apirilaren 2ko 1173/2008 Ebazpenari buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, “Larraine-Villar de Arnedo” gasbidearen Irunberriko konpresio-estaziorako Enpresa zuzendari nagusiak emandako apirilaren 2ko 1173/2008 Ebazpenari buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua aginduta koari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuko Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuak susta-

tutako 2005etik 2010era bitarteko Nafarroako energia planak ezartzen du Urraulbeitiko ibarrean egonen dela Nafarroako konpresio-estazioa, Artieda izenekoa.

Ingurumen eragineko zuzendari nagusiaren 2007ko otsailaren 9ko 197. ebazpenaren bidez ebatzi zen 2005etik 2010era bitarteko Nafarroako energia planean sartuta dagoela Artiedako (Urraulbeiti) gas-konpresio-estazioa. Ebazpen horren bidez egin zen, hain zuzen ere, Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuak sustatutako energia planaren gaineko ingurumen eraginen deklarazioa.

Hori dela eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Enpresa zuzendari nagusiaren apirilaren 2ko 1173/2008 ebazpenak goi tentsioko instalazio elektriko baimendu, haren onura publikoa deklaratu eta 13,2 kW-ko tentsio ertaineko aireko linea elektrikoarekin hargune elektriko egiteko proiektua onetsi zuen, Irunberriko "Larraine-Villar de Arnedo" gasbidearen konpresio estaziorako. Enpresa zuzendari nagusiak zer dela-eta eman zuen ebazpen hori?

Iruñean, 2008ko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Irunberriko udal plana aldatzeko espedienteari buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Irunberriko udal plana aldatzeko espedienteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko

Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren abenduaren 26ko 100/2007 Foru Aginduaren bidez onetsi zen behin betikoz Irunberriko udal planaren aldaketaren espedientea.

Parlamentari honek ondokoa jakin nahi du onespren horri buruz:

Onespen horrek izan al zuen beharrezkoa duen ingurumen-ebaluazio estrategikoa?

Neurtu al zen ur-premia?

Jarduera bereziaren helburua une honetan dauden proiektuei doitzen al zaie?

Iruñean, 2008ko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, jakiteko zergatik ez den bete “Toki ogasunen saneamendurako programa” izeneko kontusaila.**

*GALDERA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea ezen José Luiz Izco Biarge jaunak aurkezturiko galdera, jakiteko zergatik ez den bete “Toki ogasunen saneamendurako programa” izeneko kontusaila, erretiratu izanaren berri jaso

zuela. Galdera hori 2008ko irailaren 15eko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2008ko irailaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda